

14 = Hondakinen kudeaketa Gipuzkoan



Zubietako arrauste planta 2009an egiten hasiko direla adierazi du Hondakinen Partzuergoko buruak.



21 = Afganistan, mertzenarioen esku

NBEk ohartarazi du milizia pribatuaren gaineko kontrol ezak beldurra zabaltu duela herritarren artean.

EAE-KO EUSKARAREN LEGEA > 25 URTE

liteke helburu zailegiak jarri izana» Horren harira, gogora ekarri behar dira Ansola Hezkuntza eta Kultura batzordeburu jeltzaleak legea onartu berrikan esandakoa egunkari bati eskamizonekarrizketan. Hamar urtean Administra-zioa euskaldunduko zutela esan zuen.

OSAKIDETZA ETA ERTZAINITZA. Orain 25 urte agindu zirenak ez dira bete oraindik. Hezkuntza, Osakidetza eta Ertzaintza euskalduntzeko planak garatuz hitz egiten zuten orduan. Hezkuntza alorrean lan handia egin dela gogoratu du Lizundia, eta Iraile programaren barruan euskaldundu diren ehunka irakasleak ekarri ditu gogora. Ertzaintzan eta Osakidetzan, ordea, ez da euskalduntze planik garatu oraindik. «Osakidetzan eta Ertzaintzan euskalduntze planak egin gabe egotea oraindik lotsagarria da». Garmendiak ez du horren gogor hitz egin, baina Administraziozko bi atal horiek euskalduntzeko premiaz eztabaida eginda eta adostua dagoela gogoratu du. «Batzuk maitzur jokatzen ari dira, eta hizkuntz politikari behar ez diren gauzak leporatzen dizkiote. Kontuz ibili behar da horrekin».

Oraindik kritika zorrotzagoak

«Gauza asko lortu ditugu, baina baliteke helburu zailegiak jarri izana»

INMACULADA BONETA
EUSKO LEGBILITZARRIKO LEHENDAKARIBORDE OHIA

«Elebitasuna jarri zuten helburu bezala, baina elebitasun orekatua duen herririk ez da munduan»

INAXIO AGIRRE
EZKER ABERTZALEKO KIDEA

«Aurrerapen handia izan da. Ezagutu genuena eta orain ezagutzen dugunaren arteko aldea izugarria da»

MARI CARMEN GARMENDIA
EUSKO JAURLARITZAKO KULTURA SAILBURU OHIA



Inmaculada Boneta, Juan Jose Pujana eta Jose Luis Lizundia. ©EUSA

egiten dizko legeari inazio Agirre ezker abertzaleko kideak. Legea onartu zen sasotan, orain 25 urte, Herri Batasuneko legebiltzarkideek ez zuten eztabaidetan parte hartzen, eta horregatik ez zuten zuzenketarik egin. Baina ondo gogoratzen du Agirrek zer nolako jarraera erakutsi zuen orduan ezker abertzaleak. «Berdintasunaren printzipioa oso argi geneukan. Euskal Herri osorako lortu behar zela euskararen ofizialtasuna. KAS alternatibak jasotzen zuen euskarak izan behar zuela hizkuntz nazionala eta lehen, bi belaunaldiko epean Euskal Herria euskalduntzeko. Hortik oso urrutu zegoen legea».

Onartu zuten legearekin, elebitasunaren kontzeptua «inposatu» zela azpimarratu du. «Normaltasuna eta elebitasuna termino kontrajarriak dira. Elebitasuna jarri zuten helburu modura, baina elebitasun orekatua duen herririk ez da munduan. EAJk saldu egin zuen euskararen normalizazioa».

Legea indarrean izan den 25 urteotan, «aurrerapausoak» egin direla aitortu du. «Baina ez dira bete normalizazioak eskatzen dituen minimoak». Euskara dakitenean kopuruak gora egin arren, erabil-tzaileena ez da hainbeste igo, haren hitzetan. «Orduan ere ikusten zen joera negatibo horiek gerta zitezkeela. Beste zerbait egiteko aukera zegoen».

Beste zerbait egin edo legea egungo gizartearen ezaugarrietara egokitzeko premiaz jardun dute Bonetak, Lizundiak eta Labaie-nek. Baina kontu handiarekin jokatu behar dela ere esan du Bonetak. «Gaurko giro politikoa ez da berdina, gaiztotuago dago. Aldaketak egin daitezke, baina kontu handiarekin, balitekeelako aldaketok okerrera izatea, sektore batzuen presioen ondorioz».

Horretaz eta adostasuna lortzeko zailtasunaz jardun da Lizundia. «Orain 25 urte koldar eta lotsatuta zeudenak galduta dute beldurra eta lotsa, iraganarekin lotura hori ez dutela uste dutelako».



Gazte batzuk, 1982an (legea onartu zen urtean), Korrika iragartzeko kartel batzuk jartzten. ©EUSA

25 urte



IRITZIA
TXILLARDEGI
IDAZLEA

Hogeita bost urte joan dira Baskongadetan euskararen aldeko lehenengo gizarte-arauak legeztatu zirenez geroztik.

Zer esan daiteke?

Hauxe da BERRIAk plazaratu duen galdera garrantzitsua.

Lerro gutxitan nekez xeheki erantzungo.

Susmo bat eskamiko dugu, euskaldun zaharrek darabilten hitza hautatuz; eta ez euskara berriaren aldeko nahiago luketen «inpresio bat».

Alorka erantzun behar, eta arreta erabilpenean ezartzen dugularik.

Alegia: zertan da euskara fameliaren alorrean? zertan da irakaskuntzan, zertan eskolan, eta zertan maila ertainean eta goikoan? zertan da gizarte giroa euskararekiko? zertan da euskara medietan, eta zertan telebistan oso bereziki? zertan ETBian eta zertan ETR2an? zertan da euskara lanaren eta ekonomia-aren munduan?

Eta, jakina, galdera multzo hori erantzuterakoan, hiru eskualde berezi behar dira: Hau da: zertan da euskara Iparraldean? zertan da Nafarroan? zertan Baskongadetan?

Azterkizun gaitza, ageri denez. Eta, hala ere, Euskal Herrian bizi den edozein begiralek berehala emango luke bere «susmoa».

Leku eta gizaro askotan, «erasora» entzun daiteke ia-ia.

Diximulurik gabe: «A por ellos!» Euskaraz: «erazuz!» entzungo genuke.

«Pero, ¿qué me dice?! No le entiendo!; Ya está bien?».

Edo ta: «Allez - allez! Ça suffit largement! Arrêtons cette farce et parlons français!».

Nafarroan Sanz mintzo da lotsa-gabeenik. Eta hauxe dio funtean: «Basta ya! Todos los navarros hablan ya castellano, afortunadamente. No demos más cuerda a la lengua del terrorismo».

Diru laguntzak eten. Baimenak ukatu, festak debekatu. Euskararen kontrako zafraketa guzti-guztiak burutu.

Nafarroako euskaldunak artean, eutsian eta atertzuzai.

Eta Baskongadetan, zer? Zaiantzarik gabe, hobe. Ez dugu ebidentzia ukatuko. Nahiz alorrez alor eta eskualdez eskualde gauzak aztertzean, askotan kolore nagusia gris-a izan.

Baina españolezko «tertuliano-

ak», irriari gagozkiolarik, gero eta ozenago eta harroago mintzo dira hemen euskaldunik ez balego bezalaxe.

Telebistaren alor garrantzitsuan, berriz, ETB2ak areago balio izan du 25 urte hauetan euskaraz ez dakiten euskotarrak espainiar-tzeko, euskal mundura hurbiltzeko baino. Hots, ETB2a ez zen sortu, guk finantzaturik. TeleNorte bis-itazeko.

Eta ETB1ari dagokionez, alde positiboak ikutzatu gabe, eta gorki aitortzen ditugularik, ezker abertzalearen kontrako tema iraunkorrak horretaraturik, euskaldun ikusle askok, nazkatuturik, beste katetara jotzen du gure iritzi-tza.

Eta hau oso errakuntza larria da. Zeren-eta euskal ikuslerik gehienak ezker abertzale joerakoak baitira.

Baina, ororen gainetik, gure iparra-erka eskarmentu soziolinguistikoa duten herrietan jarri behar dugu: Belgika, Suomi, Canada.

Hauetan gauza bat ikasi dugu ziur: eskubide pertsonalen gaineko Giotopolitikek ez dutela inon elebitasun orekatutik lortu, hizkuntza ahularen desagertpen isil eta legezkoa baizik.

Gure legeria ezaguturik, miraririk ezin itxaron, beraz.

Lurraldetasunik gabe irtenbiderik ez euskararentzat.

Eta Baskongadetan ere (Nafarroan eta Iparraldean ez aipa) lurraldetasunik ez dagoenez, euskarak etorkizunik ez duela aldarrikatu beharra dago.